4. Renabar zidorra

San Roman Kanpezutik Callejonera, Bardilusen inguruetan

Distantzia: 4 km
Denbora: 1 ordu 10 min
Zailtasuna: Baxua

Zidorra herriaren azkeneko eraikuntzetatik eta lehenengo soroetatik abiatzen da. Zenbait ur andelen ondotik igaro eta errepidea eta Izkiko ameztirako sarrerako atea den "EL Juncal" (ihitoki) izeneko barrera zeharkatzen da. Ibilbidean zehar bi lats zeharkatu behar dira eta azkenaren ostean bidezidor bat hartzen da, otadia zeharkatu eta berriro bidera daramana. Ur bide hauetan egoera onean dirauten haltzadiak daude. Metro batzuk harantzago, eta baso itxian sartu baino lehen, Mantxibio mendia eskuinetara ikusten da, Roya haitzaren oinetan eta Arrontzaila, Avellanedo, Soila eta El Santo harkaitza ere bai.

Behin basoan, ezkerretara hiru bide lagata, eskuinetara dauden luberrien paralelo jarraitzen da. Hurrengo bidegurutzean, Izki ibairaino jaisten den ezkerretarako bidea hartzen da, eta eskuinetara nolabaiteko talaia naturala iristen da, nondik Izkiren eta Mendizorrotzen hegoaldeko magalaren ikuspegi ederra ageri den. Hor bidea utzi eta Zubietara doan zidorra hartzen da. Harrizko zubia dago han. Handik aurrera bideak Mandazainen zidorrarekin bat egiten du.

Alternatibak:
Bardilusen inguruetan, non zenbait zidor biltzen diren, Mandazainen zidorrarekin lotzen da. Handik Kintana, Apinaiz edo Korresera, Ulibarriko zidorretik joateko bideak seinalatuta daude.

Hariztia Renabarren

5. Mandazainen zidorra

Kintanatik Apinaizera

Distantzia: 10,3 km
Denbora: 3 ordu
Zailtasuna: Baxua

Herritik irteten da, Las Huertas urmaela eskuinetara lagata. Aurrez aurre jarraitu behar da, metro gutxitara hasten diren bi bideei jaramonik egin gabe, batek bestea zahar batera darama eta bestea El Paseo zidorrarekin lotzen da. Soroen artetik jarraitzen da barrera bateraino, non Las Rozas urmaela dagoen. Beste barrera bat zeharkatu eta eskuinetarako bidea hartzen da, ameztitik Goiko Mugarrirako doana. Bidegurutze batean aurrez aurrekoa hartu behar da, bi pista zeharkatu ondoren. Eskuinetara dagoen lehenengo bidea hartuta, Los Troncos sakanetik Izko ibairaino jaisten da. Ibaia harrizko zubi batetik igaro eta landa batera heltzen da, non zenbait bide biltzen diren.

Zuzen jarraitzen da, Renabar zidorrarekin bat egiten den tokiraino. Zuhaixken artetik jarraitzen da Bardilus latsera heldu eta sakanaren paralelo doan pista hartu arte. Berehala, eskuinetara, Ullibarri zidorra agertuko da. Ondoren, el Mogal urmaela eskuinetara uzten da, hurrengo bidegurutzean eskuinetara biratzeko. Bidetik jarraitzen da, beti istilduta dagoen Loizar pasabidera heldu arte. Ameztien artetik jarraitu eta zeharka gurutzatzen den pistara heltzen da. Zidor batetik igotzen da, La Tejera gainera daraman pista nagusiraino heldu arte. Handik Apinaizeraino jaisten da.

Kintana benta

6. El Paseo zidorra

Urturitik Bentara (Kintana)

Distantzia: 2,1 km
Denbora: 40 min
Zailtasuna: Baxua



Herriaren iparraldeko azkeneko etxeak igaro eta berehala, eskuinetara dagoen bidea hartzen da. 145 bat metrora, beste bide bat hartzen da, eskuinetara berriro, ameztizabalean barneratzen dena. Bi ibiltura igaro behar dira, eta hurrengo bidegurutzean eskuinetara hartu, berriz. Handik metro batzuetara pago eta gorosti ugariko gunea zeharkatu eta, ondoren, urak Ega ibaira bideratzen zaizkion Paseoko ibaitxoa gurutzatu behar da. Baso soilune batetik, El Santo eta La Muela haitzak ikusten dira, atzean eta, pixka bat aurrerago, Kintana herria, bizkarrean profilatuta.

Mandazainen zidorrarekin bat egiten den tokian amaitzen da ibilbidea, eta handik Kintanaraino segitzea dago. Gertu dago Kintanako bentarako bidegurutzea. Eraikin sendo eta handia da benta hori, non Mandazaineko bideko pasadizokoak hartzen ziren. Alboan Kontxesi baseliza dago, XVII. mendearen hasieran eraikia, bidaiariek meza entzun ahal izateko, herriraino joan beharrik gabe.

Alternatibak:
Mandazainen zidorrarekiko bilgunean, bide horretatik Apinaizeraino edo 1100 bat metrora dagoen La Lunetarainо joan daiteke, eta handik Haitz Zabalerako bidea har daiteke, Urturira itzultzeko, ibilbide borobila eginez.

Espinaleko istila Urturin

7. Marizurieta zidorra

Urturitik Markizera

Distantzia: 8,6 km
Denbora: 2 ordu 20 min
Zailtasuna: Baxua

Zidorra Urturin hasten da eta golf zelaiko lurrak inguratzen ditu. Metro gutxira bide bat lotzen zaio, eskuinetik, zereal soroen artetik gain txiki batera heltzerainо. Hurrengo bidegurutzean La Muela eta el Santo haitzaren panoramika ederrez goza daiteke. Pixka bat aurrerago, bidegurutzean ezkerretara hartzeko biratzen da, eskuinetara urmaela utzi.. El Rason, beste urmael baten ondoan, El Portal haitzeraino doan zidor seinaleztatua irteten da.

Pistatik segituz, itxitura bat zeharkatzen da, ameztian barneratzeko. Lats bat zeharkatu eta eremu garbiago batera irteten da, Arizulu latseraino jaitsiz. Beste itxitura bat igaro, eskuineko bidetik segitu eta, handik metro gutxira, ezkerreko adarra hartzen da, La Majada mendateraino igotzen dena. Hemendik Botondela zidorrerantz doan lotura irteten da. Itxitura bat zeharkatu eta koniferen birlandaketen artetik jaisten da, bideak bide handiagora ematen duen tokiraino. Puntu horretan eskuinetara bide bat irteten da, Txarabitana zidorrarekin batzen dena, Markizeraino jarraitzeko ezkerretatik jarraitu behar da.

Alternatibak:
Kilometro bateko bidea egin ondoren, bidegurutze batean, Mandazainen zidorrarekin lotzen den Haitz Zabalеko bidea har daiteke. eta ibilbide laburra egin Kintanaraino zein Apinaizeraino joan.

Urturiren ikuspegia

8. Botondela zidorra

Markizetik Molino ibaiko zubiraino

Distantzia: 8 km
Denbora: 2 ordu 30 min
Zailtasuna: Ertaina-Baxua

Ibilbidea Markiz hiribilduko landa turismoko etxearen paretik abiatzen da, eskuinetarako bidea hartuta, igoera labur eta pikoan berehala altuera hartuz. Lehenengo bidegurutzean ezkerretarako bidea hartzen da. 1600 metroko ibilaldiaren ostean pista nagusia utzi eta Murba mendixkaren bizkarretik igotzen den eskuinetarako bidetik segitzen da.

Geroago, bidea hobeto markatutako pistarekin lotzen da. Ezkerretatik igotzen segitu behar da alderik garaienera heltzeko. Puntu honetan bidea utzi eta eskuinetara dagoen saihesbidea hartzen da, zereal soroak inguratuz. Enguatik, ezkerreko bidetik parkeko behatoki zoragarria den Belabiako postontzira igo daiteke. Eskuinetik jarraituz, zidorra Gurtatia pagadian sartzen da, eta aurrerago ezkarneztun larredien gunera irteten da. Pista, orain, erkametz basoan sartu eta Larraurena mendatera heltzen da, non ezkerretik irteten den pista albo batera uzten den, eta eskuinetik segitu behar da, jaitsiera leunean. Geroago, beste bidegurutze batean jaisten jarraitzen da, ipuruak barreiauta dauden bizkarraldegarbitik. Bideak aurrera egiten du, zuhaizka heskaiez inguratutako finken artetik, pixka bat aurrerago pista nagusiarekin bat egin eta Molino Ibaiko Markiz zubia gurutzatzen du.

Alternatibak:
Kiribil erako ibilbidea egiteko aukera, Urarte eta Markiz lotuz.

Harkaiztia Markizen

9. Los Molinos zidorra

Urartetik Markizeraino

Distantzia: 2,9 km
Denbora: 50 min
Zailtasuna: Baxua



Urarteko hiribilzitik eskuineko bidea hartzen da, egun aiurri egoeran dagoen XVI. mendeko santutxo monumental baten ondoan. Pista asfaltatu batetik segitzen du, abeltzaintzako ustiapen baten ondotik igaro ostean, ibairaino jaisten da, Markiz ibaiaren Zubia izeneko mugartean. Horrela, harrigarriki, Markizeko lurretan dagoen Urarteko errotaraino heltzen da, non sorkia mugitzen duen eta, aldi berean, errotarriak mugiarazten zituen ura pilatzeko kuboa edo ate-aitzinekoa bereizten den. Bidea zidor bihurtzen da, eta erriberako landaredian barneratzen da, non Markizeko aurri errota erdi ezkutuan gordetzen den. Makal, haltz, sahats, urkidi eta ezpel muluzko landaredatuta dauden ezki handien ondotik igarotzen da. Aurrerago, legar hobi baten erdian, ehun urtetik gorako hagina dago. Zidorrak aurrera segitzen du, legar hobien artetik, eta harmaila handi batzuen bidez, pago multzo txiki baten ondoan, desnibel handia gaindituz da. Geroago, pago dotore baten ondoan, bidegurutze batetik pasatu eta jaisten segitzen da Antoñanako zidorrarekin bat egin arte.

Alternatibak:
Avellanedoko mendi-muinotik ebakigunearen ertzetik jarraitzen da Soila mendiaren gailurreraino heldu arte.

Molino ibaia Markizen

10. Txarabitana zidorra

Arluzeatik El Rasoraino

Distantzia: 5,3 km
Denbora: 1 ordu 45 min
Zailtasuna: Baxua

Bidea Arluzean hasten da, Goiko Iturriaren parean. Eskuineko bidea hartzen da, metro gutxitara pista zabalago batekin lotu eta larre eta soroen artean gorantz doana. Mugarri barrera zeharkatu ondoren, bidea gora doa ipuru, txilar eta larreen artean Done Justiren magalerantz. Handik metro gutxitara, bidea utzi eta ezkerretara hedatzen den zelaia zeharkatzen duen zidorretik jarraitzen da. Berehala ezkerretara El Cartero zidorrarekin lotzen duen beste zidor bat uzten da. Hormatxoaren paralelo jarraitu eta pagadian sartzen da. Metro batzuk aurreragо, eskuineko magalean, Aginal dago, hagin handiak dauden tokia. Zidorra Izkiko mendien gainetik ipuruduun larrediak dauden goi lautada batera zabaltzen da. Behin La Señorita Leizezuloa gaindituta, eskuinetara Gurutzeko haitzak ageri dira. Horrela, El Raso izeneko tokira heltzen da, harresitxo zaharren hondakin eta pila handitan metatutako harriekin, eta han amaitzen da Txarabitana zidorra, El Cartero zidorrarekin bat egiten, Apinaizerantz segitzeko.

Alternatibak:
Rekaskana izenez ezagutzen den aldean Marizurieta eta El Cartero zidorrekin lotzeko aukera dago. Bestalde, El Rason El Cartero zidorrarekin lotu eta handik Arluzeara itzultzea badago.

El Raso

11. El Cartero zidorra

Apinaizetik Arluzeara

Distantzia: 5,6 km
Denbora: 1 ordu 50 min
Zailtasuna: Baxua

Neiratarren Jauregitik, Apinaizen, berehala kale nagusia utzi, eskuinetara jo eta Carrantanera doan zidorra hartzen duen bidea hasten da. Gora haitz bloke handien artean sigi-saga egiten da. Itxitura bat zeharkatu eta metro gutxira, eskuinetara, Los Cáñamos putzua ikusten da. Uraren bideari segituz, Carrantan urtegiraino heltzen da, aurrerago bitan banatzen dena, eta eskuinetara segitzen duena, Carrantan eta Larga haitzen artetik EI Rasoraino, non Txarabitana zidorrarekin lotzen den.

Igotzen segitzen da Done Kristobal mendiaren magaletik gainera heldu arte eta ebakiaren ertzetik jarraitzen da, Arbororaino, non zidorra ebakitik banandu eta bide zabal batetik segitzen duen, bidegurutze batearaino, eta han aurrez aurre dagoen zidor estua hartzen da. Larrean, pista bat gurutzatu ondoren, Arratia Sakaneraino segitzen da. Geroago, itxitura bat zeharkatu ondoren, bideak Arratiako sakaneko latsaren paralelo segitzen du eta azkenean Arluzeara heltzen da.

Alternatibak:
Goiko iturritik Txarabitana zidorra irteten da. Hortik El Rasoraino itzul daiteke, zidorra bertan amaitu eta El Carterorekin batzen baita, Carrantanetik Apinaizera jaisteko edo, bestela, Mandizibideairaino itzuli eta El Carterorekin bat egiteko, Arboro izeneko mugartean, eta Done Justi eta Done Kristobal gailurretaraino heltzeko.

Los Arrancaos

12. Sarrondo zidorra

Maeztutik Apinaizera

Distantzia: 4,3 km
Denbora: 1 ordu 15 min
Zailtasuna: Baxua



Zidorra Maeztutik irteten da, Zentro Sozialetik, bide asfaltatu batetik. Lehenengo bidegurutzean aurrez aurre segitzen da hurrengoraino, non ezkerretako bidea hartzen den. Bideak zuzen segitzen du, soroen artean, pistaren amaierako ibiturraraino. Ondoren ezkerretako zidor estu batetik segitzen da, ameztiaren barrena. Basotik irtetean larre batera heldu eta ehizarako itxitura zeharkatzen da, baso landaketak dituen lur saila mugatzen duena. Ameztiaren paralelo segitzen da, basaerramu polit baten parean eskuinetara ondo markatuta dagoen zidorra hartu arte. Puntu honetan Larrabila zidorrarekin batzen den eta Korreseraino doan ezkerreko bidea uzten da.

Oinez jarraituz, zidorra Apinaiz Korresekin lotzen zuen bide zaharrarekin batu eta ameztian barrena sartzen da. Itxitura bat eta zelai txiki bat zeharkatu ondoren, La Toba edo El Cañaveral izeneko urmael txikia ikusten da. Bideak segitzen du, mendi magalaren erdi paretik, paisaia ireki batetik, nondik Alorreko Andre Mariaren baseliza ikus daitekeen. Bidegurutzean aurrez aurre jarraitzen da Apinaizeraino heldu arte.

Alternatibak:
Larrabila zidorrarekin lotu eta, horrela, Korreseko Erdi Aroko herri gunera hel daiteke.

Apinaizeko ikuspegia

13. Larrabila zidorra

Korresetik La Tejera gaineraino

Distantzia: 5 km
Denbora: 1 ordu 40 min
Zailtasuna: Ertaina

Korresen sartzean, sarrerako errepidea gurutzatu eta malda pikotik gora doan pista bakarra hartzen da. 500 bat metrora bidegurutzea dago eta eskuinetara jo behar da, Arronzaila mendiaren magaletik leunki igoz. Aldapa baten ostean Salitre de Medio dago, kareharrizko bloke handi baten babesean dagoen pagadi txikia, Mantxibiopean dagoen Roya haitzaren inguruetan.

Handik 2 kilometrora itxitura batek jartzen du Korres eta Maezturen arteko muga. Aurrerago, zidorrak magal erditik doan berreskuratutako Larrabila izeneko bide zahar batetik segitzen du, eta Mantxibio mendia inguratzen da tontorreraino heldu arte. Pista bat zeharkatu ondoren, ameztitik segitzen da lautada batera irten arte.

Hurrengo bidegurutzean eskuinetatik segitu behar da. Esquina Aguda izeneko mugartean Sarrondo zidorrarekiko lotunea dago. Handik kilometro batera bidegurutze bat dago, non teilategi zahar bat dagoen. Bi bideetako edozeinetatik La Tejera gainera darama, Apinaizen inguruetan, non Mandazainen zidorrarekin lotzen den.

Alternatibak
Mantxibio mendira bigarren pagadi orbanaren irteeratik 600 bat metroko zidorra hartuz igo daiteke. Esquina Aguda izeneko mugartean Sarrondo zidorrarekiko lotura dago, nondik Maezturekin lotzen den.

Ikuspegia Mantxibiotik

14. Agin zidorra

Korresetik Angiora

Distantzia: 3 km
Denbora: 1 ordu 15 min
Zailtasuna: Ertaina–Handia



Behin goiko iturria gaindituta, Korresen, heskai eta soroen artean doan ezkerreko lehenengo bidea hartzen da. Gorago, ur biltegi baten ondoan Bide Zabala utzi eta eskuineko mendixkatik igotzen da. Metro gutxi aurrerago, ezkerretik bide bat lotzen da eta geroago beste bi eskuinetik, bidegurutze bateraino heldu arte, non zuzen jarraitzen den, itxitura bat igaro ondoren. 100 bat metro harantzago pistatik irten eta ezkerretako bidea hartzen da. Altitudea irabaztean bidea gero eta lur garbiagotik doa, pago, ipuru eta ezpelak sakabanatuta ageri diren larre harritsuari bide emanez. Behatoki natural bikaina den Avellanedo mendi-muinora heltzen da. Hemendik jaisten hasten da, Soilaren ekialdeko magaletik Angioraino zidor piko eta estutik, eta zuhaitz bitxi izendatuta dauden ezki handien ondotik igarotzen da. Aurrerago, legar hobi baten erdian, ehun urtetik gorako hagina dago. Zidorrak aurrera segitzen du, legar hobien artetik, eta harmaila handi batzuen bidez, pago multzo txiki baten ondoan, desnibel handia gaindituz da. Geroago, pago dotore baten ondoan, bidegurutze batetik pasatu eta jaisten segitzen da Antoñanako zidorrarekin bat egin arte.

Alternatibak:
Avellanedoko mendi-muinotik ebakigunearen ertzetik jarraitzen da Soila mendiaren gailurreraino heldu arte.

Hagin berezia

15. Antoñanako zidorra

Korresetik Antoñanara

Distantzia: 4,1 km
Denbora: 1 ordu 15 min
Zailtasuna: Baxua

Korreseko elizatik abiatuta, hilerrira daraman pista hartzen da. Soila mendiaren magala ezkarneztien, karraskalen eta astigarren petik inguratzen duen bide buztintsutik segitzen da. Pixka bat aurrerago, bidearen desbideraketa batean, eskuineko adarretik segitzen da, ezkerretarako bihurguneraino. Une horretan bide hori utzi behar da, eskuineko bidexka hartu eta puntu honetan orraindik dirauen bide zaharretik segitzeko. Zidor atsegin batetik egiten da aurrera, ezkamezti eta ezpeldun karraskalaren petik eta, geroago, pagadian zehar doana. Zidorraren puntu batean ikaztegi edo txondor zahar baten tokia zeharkatzen da eta, zeharkatu eta berehala, ibilbideko puntu-rik garaienera igotzen da, antzina gaztelu bat kokatu zen harkaitzezko monolitoaren oineraino, juxtu.

Zidorretik segituz, behatoki natural bikaina den tontor batera heltzen da. Gero jaisten hasten da, orientazioa aldatu eta pista batera emanez.

Alternatibak:
Lagabiatik gertu Bujanda zidorrarekin lotzen den bide bat dago, eta Izki ibaiko sakanetik Korresera itzuli edo Bujandara gerturatzeko aukera dago. Aurrerago, gaztainondo multzo baten parean, beste bidegurutze bat dago, nondik Agineko zidorrarekin lotu eta Korresera itzuli ala Soila mendira igotzeko aukera eskaintzen den.

Antoñanako ikuspegia

Bide zidorrak

izki
parke naturala

Izki, Arabako hego-ekialdean, 1998an izendatu zuten Parke Natural. Bere 9.143 hektareetan paisaia desberdin ugari biltzen ditu eta Euskal Autonomia Erkidegoko parkeetan hirugarrena da, handitasunean.

Funtsean, Izki basoa eta harkaitza da. Nagusiki ametzia dago, baina pagadiak, artadiak, haltzadiak, ezkarneztiak, baso mistoak, urkidiak, lertxundiak, harizthiak... ere badira.

Ibai txikiek –Izki, Molino, Berrón–, zeharkatzen dute bailara. Zenbait puntutan ura azaleratu eta putzuak, tranpalak eta zohikaztegi gaiak eratzen dituzte. Hezegune hauetan, anfibio eta hegaztien fauna interesgarriaz gain –txilinporta txiki, murgil handi...–, flora baliotsua ere garatzen da, hala nola, nenufar zuria, eta landare haragijale sorta aberatsa.

Zeruan, basoaren gainean planeatuz, arrano beltzaren, zapelatzaren, sai zuriaren eta saiarrearen figura lirainak nabarmentzen dira, Izkiko gailurretako kareharrizko harkaitz ebaki dotoreetan atseden hartu eta kumeak egiten dituztenak.

Goiko aldeetako larredi zabalak, non behi, behor eta ardiak bazkatzen diren, pertsonak bizi direla adierazten dute. Kultur ondare oparoak bailara eta mendi hauen historiaren berri ematen du: leize-zulo artifizialak, baselizak, herri gotortuak, tumuluak, karegileak, gazteluak, hondakin arkeologikoak... eta azkenik, Korres Erdi Aroko herria, parke barruan biztanlerik duen herri gune bakarra.

Gastronomia, eskulangintza, tradiziozko jaiak, erromeriak, eta Izkitik gertu dauden herrietan han-hemenka dauden landetxe abegitsu eta erosoek Parke Naturala are interesgarriago bihurtzen dute.

Zerbitzuak
Mendi-ibiliak, bizikleta eta zaldi gaineko ibilbideak dira, besteak beste, Parkean zein inguruneан eskaintzen diren jarduerak. Urturin dagoen golf zelaiari esker kirol hori natura betean egin daiteke. Parkearen inguruetan ere hainbat astialdi gune daude, berezko edertasuneko eremuetan.

Etorkizunean Interpretazio eta Informazio Zentroa Korres herrian jarriko dute.

Nola heldu
A-132 errepidetik (Gasteiz-Lizarra), Parkearen iparraldeko guneetara heltzen da: Birgara, Apinaiz, Atauri, Antoñana, Bujanda eta Maeztu. Maeztutik A-4124 errepidea irteten da, San Roman Kanpezura doana eta Korresera joateko har daiteke-ena. Nahiago bada naturgunearen hegaldera joatea, A-2124 errepidea hartu behar da (Gasteiz-Logroño) eta Armentiako Bentetan Bernedorantz desbideratu, A-126tik, horrela Markiz, Arluzea, Urturi eta Kintana hurbilduz.